



*eguberri
kantak
2021*

Zabar

*eta
berriak*

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

*Ur goiena,
ur barrena,
urte berri egun ona*



Urte zaila 2021a. Ditxosozko birusak gure etxeetako egunerokoa baldintzatu du neurri batean edo bestean. Aestetik as-tera aldaketak, neurriak, neurrien ezabatzeak, berriz ere kutsatzeak... Jada ohiko bihurtu dira gure artean osasunarekin harremana duten gaiak, solasaldiak, iritziak eta zenbakiak, zenbaki asko.

Baina abesteko aukera, eskubidea, ez digute kendu. Gabonetan kantuz kantu aritzeko gozamina ez dute ezabatuko. Horren lagungarri izateko prestatzen du urtero-urtero HITZA-k esku artean duzun kantu liburuxka. Une zaileri errazago aurre egiten baitzaie memoria kolektiboan gordeta dauden eta urteko aro honetan abesten diren kantuekin.

Dozenaka abesti daude bilduta datozen orrialde guztietan. Asko oso ezagunak dira herritarrentzat oro har, baina badira su txikiek bezala bizirauteko aukera besterik ez dutenak. Bada ezagun nahiz ez hain ezagun izan, hemen daude. Tradizioa aipatzen denean atzera begiratzeko joera izaten da, baina tradizioak eguneratu eta berritu egin behar dira euskal jendarteak aurrean dituen erronkei aurre egin nahi badie, euskarak aurrera egin dezan esparru berriak zabaldu behar direlako.

Goza ezazue liburuxka. Eman, zabaldu eta erabili. Zoriontsu izan, irribarre egin. Abestu.

Argitaratzailea: Oartzualdeko Hedabideak SM

Publizitatea: 647 35 42 54

Lege gordailua: SS-0793/93

Helbidea: Irun kalea, 8 . 20100 Errenteria-Orereta

Tel: 943 34 03 30

oarsoldaldea.hitza.eus

bidasoa.hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus

CIFP **DON BOSCO** LHII



Lanbide heziketa baino askoz gehiago



**DON BOSCO ALDEA
LAN HIRIA**

20100 Erretereria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900

donbosco



ikasLAN



HATOR HATOR

Hator, hator lagun etxera,
gaztaina ximelak jatera,
gabon gaua ospatuzeko
aitaren t' amaren ondoan;
ikusiko dut aita parrezka
amaren poz atseginez.
Eragiok lagun aurreko
danbolinari!
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, plum;
gabon gaua pozik igaro daigun.



Zerionak!

**JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29**

- Haur eta helduentzako Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote, eta familia terapia

Jakobe Batanero Álvarez - Psikologoa GZ1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea, 5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

Eguberri hauetan urtebeteko **Oarso-Bidasoko HITZAren harpidetza bat oparitu** dezakezu*. Horretarako zatoz HITZAren bulegora (Irun kalea 8, behea. Errenteria-Orereta) eta opari kutxa bat emango dizugu nahi duzunari oparitzeko. Informazio gehiago: oarsobidasoa@hitza.eus helbidera idatzita edo 688 77 07 52 zenbakira deituta.

(*) urteko harpidetzaren kuota 80 eurokoa da.



**OPARITU
HITZA**

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela
herrira etorri.
Gurekin nahi baduzu
herrira etorri
atera beharko duzu
gona zahar hori.

Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen nil!
Hatoz, hatoz zure bila nenbilen nil!
Hatoz goazen ta agurtu dezagun
herrian jaio den haurtxo eder hori
Haurtxo eder hori.



Mª Asun
Lentzerna

Emakume - Gizon - Haur
Triumph • Janira
PRIMA DONNA
Gottini
● Punto Blanco

Jai zoriontsuak!
Eitortzako kalea, 8. Tel: 943471591



ARI NAIZELA

Ari naizela, ari naizela,
nekatu zaizkit ezpainak.
Etxe hontatik espero ditut
sei erreal ta gaztainak.

Ari naizela, ari naizela,
nekatu zaizkit ezpainak.
Etxe hontatik espero ditut
sei erreal ta gaztainak.



Lete

itzulpenak

www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.

Aditu duenean
haurra jaio dala,
lasterka etorri da
berri ematera.

Olentzero inondik
ezin dugu ase,
osorik jan dizkigu
hamar zerri gazte,

saiheski ta xolomo,
makina bat heste,
haurra jaio da eta
kontsola zaitzte.

Horra,horra,
gure Olentzero.
Pipa hortzetan duela
exerita dago,
kapoiak ere baita
arrautzatxuakin,
bihar meriendatzeko
botila ardoakin [hiru aldiz].

Donostian, Erreterian, Lezon, Oiartzunen eta
Pasaian salmenta eta alokairuarekin lan egiten dugu



Jai zoriontsuak!

MELANIA

Madalen kalea, 2 behea - Erreteria

943 053 642 - 677 238 095

inmomelania@gmail.com

GABON GABIAN

Gabon gabian ohituzen degu
guztioak afari ona
bixigu, legatz bakailu saltsa
bakoitzak berak ahal duna
gero txurrun plin plan
ardo ta pattarra
katua hartuta
sagu-saguka.



ALCIBERRETA
GARRAZA 16

ETXORNO
BIBITUA

LEZARINDEGA
BIBITUA 16

KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria, kabaladenda@gmail.com

AGUR, ESKERRIK ASKO

Agur, eskerrik asko,
Agur, etxeoak.
Hurrengo urte arte
hemendik bagoaz,
hemendik bagoaz.

Gaur da Olentzero ta
bihar Eguberri.
Etxeko andre maitea,
txanpon bat edo bi,
txanpon bat edo bi.



Betti
bitxidenda

*Jai zoriontsuenak paca
eta urte berriari*

Biteri 19, Errenteria - Tel.: 943 52 96 49

OLENTZERO BURU HAUNDIA

Olentzero buru haundia
entendimentuz jantzia,
bart arratsean
edan omen du
hamar arruko zahagia.
Ai, urde tripahaundia!
Tralaralala, tralaralala.
Ai, urde tripahaundia!
Talaralala, tralaralala...



zumardi

Egunkariak
Aldizkariak

Elkar
goxatu
dezagun

kioskoa

J.I. Gamon Zumardia
Errenteria-Oreleta

The advertisement features a cartoon illustration of a boy with a wide smile, wearing a striped shirt and a white cap, holding a sign that reads "ZOBIONAK ETA URTE BERRI ON". The sign is tilted and has a white background with orange and black text. The boy is set against a green circular background. The overall design is clean and colorful, with a white background and a black border.

ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan
zakua lepoan
ibili beharko degu
aurtengo neguan.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

hau dek umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

hau dek umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

MAITEXA
TABAKOAK-OPARIAK



Bizente Elizegi, 3 Errenteria . 943 51 21 10

KAX-KAX ATEAN

Kax, kax, kax atean
Nor dabil etxean?
Ikusi makusi
Nor naizen ikasi

Praka zabalak
Atorra urdina
Ai ene! ez dakit ezer ez,
ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean...
Mutur zikina, txapela beltza
Ai ene! ez dakit ezer ez,
ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean...
Pipa ahoan
Ardoa bertan
Bai, bai, bai, lehen orain eta gero
Zu zara gure Olentzero.



LIRAIN

moda

*Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!*

Biteri 13, Errenteria
Tel.: 943 00 42 08

DIN, DAN, DON, DIN, DAN, DON!

Din, dan, don, din, dan, don! Eguberria
Haurra jaio zitzaigun egun pozgarrian. Bail

Din, dan, don, din, dan, don! Eguberria
gaur ere alaitu bedi gure herria.

Denok dezagula jaialdi hauetan
zorion betea gure etxeetan.
Bakea dadila giza legeetan,
grazi ugaria beti gure bihotzetan. Bail

A Christmas card with an orange background and white stars. On the left is a white line-art Christmas tree. In the center, there is a black square with the 'rosmi' logo in white. To the right of the tree, there is handwritten text in Basque: 'Uste berea' and '2011'. Below the tree and logo, there is a list of three items: '• Lanerako eta ostalaritzarako arropa', '• Etxeko arropa', and '• Barmurako arropa gizonetzkoentzat'. At the bottom, there is a black bar with white text: 'Foru plaza, 21. Tel. / Faxa: 943 511 887 - 20100 Erretera'.

LO DAGO

Lo dago gure haurtxoa
sehaska goxo beroan
Olentzerok ekarriko
dionaren esperoan.

Ta bitartean
Gabon gauean
Olentzero dator
gurdi gainean.

Ikazkinarekin amets
egiten du haurtxoak
jostailu berriak eta
karamelo goxoak.

Ta bitartean...

ATERPE
HIGIEZIN AGENTZIA

1986
TIA

Zorionak eta urte berri on!

- Alokairuak eta Salmentak.
- Bermea + Segurtasuna.
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen.

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

OLENTZERO SALDA BERO

Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro, zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Zurekin bai tratu ona!

Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Olentzero salda bero!

Aitonarentzat hodeiak, aitarentzat euria
amak beretzat nahi du ilargia
amonarentzat, berriz, neguko eguzkia
ta niretzat beste guzti guztia!



Hitzak: Leire Bilbao
Musika: Xabier Zabala
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen
'Musua' disko-liburuan argitaratua.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran aurkituko gaituzu

943 63 45 36
goieko@goieko.com - www.goieko.com

MARI DOMINGI

Erdi sorgin erdi lami
beldurrik ez basoari
lanean kantu kantari
ipurmasailak dantzari.

Anbotoko Mari
besotik heldu ta dantzan doa
haitzuloz haitzulo
ezetz geratu lo!

Goizero jaiki orduko irrintzi
buruzapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
bera da Mari Domingi!

Erdi sorgin erdi lami
Mari Domingi
sustrai azpitik lainoz gaindi
bihotza bera bezain handi.

Goizero jaiki orduko irrintzi
buru zapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
GU GARA MARI DOMINGI!!!

Hitzak: Leire Bilbao

Musika: Xabier Zabala

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen

'Musua' disko-liburuan argitaratua.



LARRAÑAGA
PROIEKTUAK

ERREFORMAK
SUKALDEAK
BAINUAK

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON

 @larranaga_proiektuak  Larrana Proiektuak

www.larranaga-proiektuak.com

Taloia industriagunea P-1, 8. lokala
OIARTZUN - Tel.: 943 558 104

BIZARZURI

Gabonak! , Gabonak!
Hau zoriona!
Bertsotan ari zaigu gaur aitona,
ajaja!, barrezka dago amona

Bizarzuri , Bizarzuri
mendi gainak xuri-xuri
Zorionak ! Zorionak !
Bertan ditugu gabonak

Tximini zulotik
norbait sartu da
Mutur beltz, begi gorri, aibalio!
Olentzero dela , halaxe dio

Laister urte berri
Gaur olentzero,
alferrontzi, mozkor eta tripero
Hor dago sutondoan bero-bero



OILARRA KANTA-KANTARI

Oilarra kanta kantari
kukurruku kukurruku
kale jiran dabilta
kukurruku kukurruku.

Eguberri jaiak ospatzen
kukurruku kukurruku
[edo tralarala tralarala]
Haurra jaio da goizalden
kukurruku kukurruku
[edo tralaralalalala]

Atzetik txitoak ere
txio txio txioka!
Atzekoei ezin segi
txio txio txioka!

Eguarri gaua ospatzen
txio txio txioka!
Haurra jaio da goizalden
txio txio txioka!



Nagore Cabada

HORTZ KLINIKA

Zanarrak! Egin imbare!

Santa Klara plaza, 2. 20100 Errenteria

943 017 876 linikanc@gmail.com

KAXKA ZURI

Kaxka zuri sudur gorri
mendigaina zuri zuri
zorianak zorianak
bertan ditugu Gabonak

Gabonak Gabonak hau zoriona
bertsotan ari zaigula aitona
ajaja parrezka dago amona

Kaxka zuri.....

Laister Urte berri gaur Olentzero
alperrontzi mozkor eta tripero
hor dago sutondoan bero bero.

Kaxka zuri.....

Tximini zulotik norbait sartuda
mutur beltz begi gori aibalio
Olentzero dela halaxe dio.

Kaxka zuri.....



The advertisement features a central logo for Sagasti Elizondo Barne Diseinua. The logo consists of a dark green square with a white geometric design of overlapping triangles and squares. Below the square, the text "SAGASTI ELIZONDO" is written in white, and "Barne Diseinua" is written in a larger, bold, white font. On either side of the logo are two stylized Christmas trees made of small dots. Below the logo, there is a line of text in Basque: "Estan ezin Awak gabon zoriontsuak opa dizkizuzete". At the bottom of the advertisement, a dark green banner contains the contact information: "Santxoenea, 31. Erretera. 679703944 - 605765316" and the website "www.sagastielizondodecoracion.com".

Estan ezin Awak gabon zoriontsuak opa dizkizuzete

Santxoenea, 31. Erretera. 679703944 - 605765316
www.sagastielizondodecoracion.com

AGURE ZAHAR NEGU

Txilborretik hoztu da agure zahar negu
izozteak, elurra debekatua du
eguraldi gogorra beraixtuko balu.
Iaister liteke elurra, haur guztien jostailu

Gaztain saltzailea dago gurdiarekin
esku beltzak bete gaztain ke zapore(a)kin
ez dugu danbolinān aurten beharrik egin
batzuk salduko dizkigu jateko afarin

Begi gorri badator aiton olentzaro
urteak egun hainbat begi ta bat gehio
gurdia aifneko sabel, aurpegi dena aho
nondik nora sortu zen jakin gabe nago

Honengandik egunak hartua du izena
lehengeok subilaro esan ziotena
subil nahiz baztar egur nahiz enbor, bat dena
etxe bakoitzera bina dakartena

Hego haizeak zerbait urtu digu elur
mendiak ekarriko gaur bi baztar egur
haiekin urteari egiteko agur
urte berrira arte bai baitute mutur.

*Hitzak eta Musika: Herrikoia
Moldaketak; Nerea Urbizu
Abeslariak: Gabari taldea
'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.*

Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA

Zorionak!

Eta urte berri on!

DIFUTAZIOAREKIN
HITZARTUTA

PLAZA PRIBATUAK
ERE BADITU GU

943 49 21 45 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

ELURRA MARA-MARA

Elurra mara-mara
elurra mara-mara
txof txof txof txof txof txof txof
Leihotik begiratu dena zuri-zuria
Elurra mara-mara...
Leihotik begiratu
elur panpin handi bat dena zuri-zuria
Elurra mara-mara...
Leihotik begiratu
amona dabil dantzan,
elur panpin handi bat,
dena zuri-zuria

Elurra mara-mara...
Leihotik begiratu
olentzero badator,
amona dabil dantzan,
elur panpin handi bat,
dena zuri-zuria

*Hitzak eta Musika: Urko Oskoz
Abeslariak: M. Esain, N. Unzu, Z. Txokarro
eta I. Larrañeta
'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratu.*



La coquine decs

la coquine

*Dekrazioa
eta opari bereziak*

Foruen plaza 20, Errenteria
943 905 774 • 610325416



OLE OLENTZERO

Ole olentzero, ole olentzero
ole olentzero, ole olentzero
ole olentzero

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin ikatza egitera [bis]

Horra horra
horra horra
gure olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago [bis]

Ole olentzero, ...
Olentzero buruhandia
entendimentuz jantzia
bart arratsean edan omen du
hamar orruko zagia [bis]

Horra horra
horra horra
gure olentzero
kapoiak ere ba[d]itu arrautzatxoekin

Horra horra
horra horra
gure olentzero
bihar meriendatzeko botila ardoakin

Ole olentzero, ...

Musika: Herrikoia

Abeslaria: Nerea Erbiti

*'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.*

ikusi-makusi
ZURE JOSTALU DENIDA

- 🎁 Jostalu hezitzaileak
- 🎁 Puntu-puntako markak
- 🎁 Hainbatzuko jostaluzak

Marrangileta 6, behea - 943 52 88 53 - Errenteria

GABONAK DATOZELA ETA

Gabonak datozela ta jendearen tarrapata erosketa da nagusi, adornua ta zarata.

Gabonak datozela ta zelofan paper de plata nahiz epetan, nahiz zorretan kapritxorik ez da falta.

Txanpo-txanpanak botaka, itxura hala dela-ta letra ederrik helduko zaigu, Gabonak pasata.

Gabonak zetoztela ta bota genuena falta, ez da erraza izango urtarrileko aldapa.

Gabonak zetoztela ta zelofan paper de plata gastatu dugu soldata bukatu da tarrapata.

Gabonen pozarren gatoz pozik barruz eta kanpozt zuei ere Gabon-pozta opa dizuegu gogoz.

HAZI, HEZI ETA BIZI EUSKARAZ

Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus

Lezo Herri Eskola

LEZO INSTITUTUA

Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

HEMEN HELDU GERADE

Hemen heldu gerade
berri on batekin,
gure enbajadore
Olentzerorekin.

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.

Aditu duenean,
haurra jaio dela
lasterka etorri da
berri ematera.

Olentzero guria
ezin dugu ase
osorik jan dizkigu
hamar zerri gazte.

Saieski eta xolomo
makina bat heste
haurra jaio da eta
kotsola zaitezte.

Horra, horra, gure Olentzero
pipa hortzian duela
eserita dago,
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botil ardoakin.



 **Oiartzo** IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

**Zorionak
eta urte
berri on!**

943 523 804
oiartzo@ikastola.euz
www.oiartzoikastola.euz

DRINGILIN DRON

Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon. [bis]

Maskelu bete, aza egosi,
hori, zuri [e]ta gorriak,
berehala irentsi neutsazan
azkenengoko orriak. [bis]

Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon. [bis]



Valentín
Errenteria

Agnazkiak
oparitu
baietz
asmatu!

Bizente Elizegi, 3. Orreata-Errenteria. Tel.: 943 528 176

TXIKITO

Bat oilarra kalian,
Bestia portalian,
karakolak biltzen otarrian,
"siento" bi errialian.
Kukurruku! Zer diozu?
Guk txikito nahi ttugu
Txikito! Txikito!

Hondarribiko kanta herrikoia



SAN NIKOLAS TXIKIA

San Nikolas txikia
gure ganbaran hazia
gure ganbaran zer dago
andre Juana Maria
haren gona gorria

Bost eta sei bakailojale
bost eta sei hamaika
txorizorikan ez baldin bada
igoal dela lukainka
igoal dela lukainka.

*Abestu ondoren hurrek ez
bazuten etxe horretan ezer
jasotzen kopla hau abesten omen
zuten Oiartzunen. Eusko-Folklorek
1922an jasotako buletinaren
arabera.*

Or goian otia
dena lorez betia:
itxi ontako itzeko andriak
atorrra kakaz betia.

 **orereta**
ikastola
AURRIERAJ

**Zorionak eta
urte berri on!**

www.oreretaikastola.eus
orereta@ikastola.eus
943 52 03 97 



URTARO ZURIKO EMAKUMEA

Urtaro zuriko emakumea
eskarmetuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
Maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!

Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.

Beldur uxalari gau ilunetan
ondoan dela dirudi benetan.
Urtaro berde, urdin ta marroian
Mari Domingi nahi dut ondoan!

Mari Domingi badut ondoan!
Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.

Urtaro zuriko emakumea
eskarmetuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
Maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!

*Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslaria: Gorka [Leihotikan]
'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.*

Y BITXITEGIA • ERLOJUTEGIA
OADR

DUO
BIJUTERIA



Niessen zentro komertziala (Errenteria-Oreveta) Tel.: 943 51 78 78
Mamut zentro komertziala (Oñartzun) Tel.: 943 49 00 54

ZU GABE

Ettxeko atean gaur ez zaude zu baina
musu batek busti dit goiko ezpaina
Salako besaukian falta zara baina
nik somatzen dut zure sagar usaina

Zu gabe.... zeruan izarrak laino daude

Pasilloan ez dabil pauso hotsik baina
bai zure ibilera aitzeko aina
Sukaldeko leihoa hutsik dago baina
erretzen dabil labe bete gaztaina

Zu gabe... zeruan izarrak laino daude
Zu gabe... gaur nire begiak lanbro daude

Mahai ertzeko aulkian ez da inor baina
aurten ere atera dizut txanpaina
Kanturako laguna gaur eskas dut baina
zuri koplari dantzan daukat mingaina

Zu gabe... zeruan izarrak laino daude
Zu gabe... gaur nire begiak lanbro daude
Zu gabe... begiak izar nirekin zaude



 **IPARBUS**

Ondo pasatu gabonak!



 943 491 801
606 305 143

www.iparbus.com

AFARIA

Kanpoan hotz dago denok barrura egun berezia gaurkoa mahaian eserita familia, lagunak ongi pasatzeko aukera. Afaltzera goaz gauzatxo arruntak negua ospatu nahian porru ta patata arrosa ta pasta. Helduak jarrita izarrak lanean gaurkoa zuen eguna da opari onena guztion irriak familiak ez du gehio behar. Ta denok jatera irri egitera gaurko egun berezian gailetak esnea goxua, pastelak. Bapo afalduta denok kantari helduen dantzak hasten dira.

Batzuk mahai gainean kartetan bertzik momentu ahaztezina hau. Ta dena biltzera muxu ematera hori opari onena merkea, geurea benetan, denena Kanpoan hotz dago denok barrura egun berezia gaurkoa egun berezia gaurkoa

*Musika: Herrikoia
Hitzak: Urko Oskoz
Abeslaria: Estitxu Fernabdez
'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.*



Etxerako zerbitzua daukagu!

Pacheco Izeta
Loredenda

f e

NAMUT merkatalgunea - Oñartzun
943 49 18 68 - www.pachecoizeta.com

OLENTZERO ETA ASTOA

Olentzero ta astoa
basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.

Olentzerok astoai belarririk tira
astoak Olentzeroi praketatik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

Olentzerok astoai belarririk tira
astoak Olentzeroi praketatik tira
Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

*Hitzak: Leire Bilbao
Musika: Xabier Zabala
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen
'Musua' disko-liburuan argitaratua.*



ONGI ETORRI URTE BERRI

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean [berriz]

Agur urte zaharrari,
ta kaixo berriari.
afalostean ere,
segi kantu kontari

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean [berriz].
Aukera on guztiei
gogotsu egin leku
3, 2, 1, 12
kanpai hots ditut entzun!

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean [berriz]



*Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslariak: Urko Aristi
'Ene Kantak' en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.*

*Jai zoriontsuak
eta urte berri on!*



elatzeta

IKASTETXEA

www.elatzeta.eus

Araba kalea, 44 - 20305 Irun
012102aa@hezkuntza.net
Tel.: 943 93 77 59



gabonelan

oparitu artisautza



Erdiko Kalea, 13. 20100 Errenteria

Tel.: 636 89 85 43

kromosomatailerra@gmail.com

www.kromosomatailerra.com

